

JUANTXO-TXIKIREKIN POZKARIOZ

(21)

"Arren' irribarre egizu". Zure umea ondo eziko ba'dozu, irribarre eta alaitasuna bear-bearrezkoak dozuz. Zabaldu zure inguruan alaitasuna eta poza. Zergaitik beti goibel ibilli? Ez ete da ohea illuna baiño argia? Argitu egizuz zure inguru guztiak eta zuk argitutako inguru orreik, zeu egingo zaitue argiago. Orra danok irabazian, eurak eta zeu, eurai emondako argiak argitu zaitu zeu be...

Illuna zabaltzen ba'dozu, inguru orretako illunak illunago egingo zaitu zeu be.

Neure inguruan zabaltzen dodana, orixe berbera biurtzen dauste ingurukoak, baiña aundituta... Nik poza zabaltzean, nire ingurukoak pozak geiago poztuten nau. Poz ori zabaldu ala, aundiago egiten jat ingurutik datorkidan poza.

Bardin negarrarekin be: neure tristurak zabaltzean, tristura geiago datorkit biotzera, inguru guztiak tristetu dodaz-eta... Asarreagaz, bardin gertatzen jat.

—Orreik orrelan ba'dira, nire barruko ezbearrik agertzea ez jat komeni.

—Lagun bakar bateri agertzea ona da; baiña, gai orreik zure inguruan zabaltzerik, orixe bai ez jatzula komeni.

—Orduan, zer..?

—Argia, poza, alaitasuna, biotz-ona orreik danak agertu eta zabaldu; zeu eta ingurukoak, danok izango zarie irabazian.

—Eta, txarrak..?

—Illuna, naigabea, bildurra, tristura, umore txarra, biotz-ankerra, orreik barruan gorde zazpi giltz eta maratillagaz... Aal ba'duzu, beintzat.

Ezin ba'dozu, joan txoko batera negar egiten, danen aurrean egiten ba'dozu, danen kalterako izango da-ta.

*

Gogo-illun zagoz? Argitu egizu, mesedez, aurpegi ori, argia zabaltzeko; zeure umetxuak argi asko bear dabe euren inguruan, ondo aziko ba'dira. Landararik ez da azten argi barik eta zure umetxoak argi asko bear daben landarak dozuz. Argitu euren barruak, euren gogoak indartu, on guztien aziak erein euren animeetan. Zenbat eta aalmen gitxiago zeure umetxoak, ainbat eta argiaren egarri geiago. Ez egizuz illundu eta euren indar apur orreik ez egizuz uxatu.

Zeure buruarekin aaztu eta besteen onari begiratu. Ekin besteen zoriona sortarazten eta zeure biotza poz-iturri izango jatzu. Poz-iturri zeuretzat eta poz-iturri inguruko guztientzat.

ARRINDA'tar ANES

AZKEN SASTADEA IZANGO ETE

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Arria, negarrez,
eutsi ezinik.

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Mustur zorrotz onek.
erruki barik.

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Arrizko biotza
birrindu arte.

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Eriotz samina
elduko ete?

Txin, txin, txin,
mailuak trintxetari ekin.

Oi gure Euskal arrizko Erri au!
Txin, txin, txin...

Hamburg, 88-11-27

1. MARTIARTU